

GS-KO AFILIAZIOA ETA KONTRATAZIOA

Afiliazioak maximoetan jarraitzen du abuztuan...


Gizarte Segurantzako afiliazioa 1.031.282 pertsonakoa izan zen abuztuan Euskadin, erregistroak daudenetik daturik onena abuztu baterako. Urte arteko datuei dagokienez, afiliazioaren hazkundea %2,4ra iritsi zen, hau da, urtebete lehenago baino 24.487 afiliazio gehiago izan ziren. Uztailarekin alderatuta, afiliazioak %1,1 egin du behera, portaera hori ohikoa da abuztuan, urtarokotasun faktoreak direla eta. Sexuaren arabera, emakumeek bilakaera hobe izan

zuten: 492.015 afiliatu eta %2,8ko urte arteko hazkundearekin; gizonen kasuan, berriz, %2,1eko gorakada izan zen, 539.265 afiliatira iritsiz. Sektoreka, afiliazioak gora egiten jarraitu zuen jardura-adar guztietan, eta nabarmen-tzekoak dira zerbitzuak, %2,8ko hazkundearekin; eraikuntzan eta industrian, aldiz, aurrerapen apalagoak izan ziren, %1,7koa eta %1,0koa, hurrenez hurren.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA


Urte arteko aldakuntza tasa

ABUZTUKO AFILIAZIOA
%2,4




GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Gizarte Segurantza.

...eta kontratazioaren hazten jarraitzen du

Abuztuan 54.289 kontratu erregistratu ziren Euskadin, urtebete lehenago baino %18,2 gehiago. Kontratazio mugagabeak berriz ere indar handiagoa erakutsi zuen aldi baterakoak baino, %24,5eko urte arteko hazkundearekin; azken horrek, aldiz, %16,6ko hazkundera izan zuen. Horrela, kontratazio mugagabeak kontratu guztien %21,9raino igo zuen bere pisua. Era berean, 40.992 pertsona kontratatu ziren, 2025eko abuztuan baino % 12,6 gehiago. Uztailarekin alderatuta, kontratazioak %23,6 egin du behera. Hau, ohiko bilakaera da abuztuan, afiliazioarekin gertatzen den bezala,

urtaroko faktoreen ondorioz, aurreko hilabeteetan ikusitako bultzada handiaren ondoren. Jarduera adarren arabera, kontratazioa batez ere osasun- eta gizarte-zerbitzuetako jardueretan, ostalaritzan, administrazio jardueretan eta merkataritzan kontzentratu zen, hauek guztizkoaren erdia baino gehiago bildu baitzuten. Sexuen arabera, banaketa ia orekatua izan zen: kontratuen bolumena oso antzekoa izan baitzen gizonen eta emakumeen artean, eta urte arteko bilakaera positiboa bi kasuetan.

ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

GUZTIRA

Milakoak

KONTRATUAK ABUZTUA


18,2%



ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

EMAKUMEAK


Milakoak



ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.

GIZONAK

Milakoak



Iturria: SEPE.



Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila